


ZER
ALDIZKARIA

403n. zenbakia
2014 JORRAILLA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

IZADIA ZAINDU XIV.



**LOURDES eta PAULO'ren
Urrezko ezteguak 1963–2013, IV.**

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2013-2014 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 46. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 7an

46. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 7 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errokoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN URTEKO BATZAR NAGUSIA

(Bilbaon 2014n Epaillaren 27n)



Bi milla eta amairugarren urtean Epaillaren 27an arratsaldeko zazpiterdiak zirala, Euskerazaleak Alkartearen Zuzendari Batzordeak, aurretiaz deia eginda, Batzar Nagusia egin eban.

Bilbaon, Kolon de Larreategi kaleko 14n zenbakian, 2gn solairuan dagon Euskerazaleak Alkartearen giza-etxean.

Batzar onetara, aitatzen diran batzarkideak batu ziran:

- Alonso´tar Margarita.
- Garai´tar Jorje.
- Arrieta´tar Koldobike.
- Arrieta´tar Itziar.
- Fernandez´tar Karmele.
- Egurrola´tar Iñaki.
- Barroeta´tar Klaudio.
- Atutxa´tar Paul.

AURKEZPENA:

Leenengo, batzarrari asiera emoteko, Barroeta tar Klaudio Euskerazaleen alkarteko lendakariak adierazi eban batzarraren antolakuntza zelango baldintzatan egingo genduan.

Ondoren, zutunik abestu euskun emen agertzen dan bertsoa :

Mendi aldatz berantza
doa iturria,
biurtuz lorategi
beko belardia.
Antzera dabil gure
Euskerazalia,
urte osoan landuz
euskera bitxia,
bikaña dala ikusiz
bere ekarria.



1´go.- IDAZKARIA: Atutxa idazkariak, aurreko Batzar-Nagusiaren 2012 agiria irakurri eban eta ontzat artu zan.

2´gn.- 2.013ko DIRU KONTUA:

Karmele arduradunak auxe esan euskun:

AURTEN IGAZ LEZ, DIRUA EMOTEN BA DAUSKUE, EGUTEGIA, IKASTURTEA, IPUIN SARIKETA, WEB ORRIA, EUSKAL ASTEA TA BESTE EKINTZA BATZUK EGINGO DIRA.

BAIMENA ESKATU GENDUAN DIRUA ESKATUTEKO, BAÑA EZ DA IZAN BEAR.

Karmele Fernández (diruzaiña)

3´gn.- URTEKO EKINTZAREN AZALPENA:

Arlo onen azalpena, Barroetatar Klaudiok adierazi eban lendakari lez.



EUSKERAZALEAK ALKARTEA 2013n URTEKO EKINTZAK

Adiskideok:

Urte guztietan lez, Batzar-Nagusi onetan, urte barruan egin doguzan lanen barria emoten dogu.

ILLEROKO BATZARRAK eta URTEROKOA:

Utsik egin barik bete dogu illeroko batzarra eta urterokoa, Atutxatar Paulok gure bazkide eta idazkariaren BATZAR AGIRIETAN ikusi daiteken lez.

IPUIN-SARIKETA:

Urte guztietan lez eginda, oneik izan dira aurtengo sarituak:

- 1'go SARIA: Leniz tar Arantza
- 2'gn SARIA: Merino tar Palmi.
- 3'gn SARIA: Etxebarria tar Juan Manuel
- 4'gn SARIA: Legarreta tar Asier
- 5'gn SARIA: Hierro tar Patxi

EUSKAL ASTEA:

Euskeraren Astea be ospatu genduan Zemendiaren 26tik. egunetik ogeitaamarrarte:

- 25- Atutxa tar Paul.
- 26- Larrea tar Angel
- 27- Barroeta tar Klaudio
- 28 - Larrea tar Angel
- 29- Barikuan Atutxatar Paulok bere bigarren berbaldia azaldu eban.



TAKOA BIZKAIERAZ

Betiko lez takoa argitaratu dogu Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntzarekin.

Diru laguntza eukiten badogu, jarraituko dogu Takoa argitaratzen, baña ori murrizten badauzkue ez da erreza izango guk bakarrik argitaratzea.

Aurten ez dakigu zer gertatuko dan; orregaitik Uztaillarte arte ez dogu ezer jakingo.

Guk, orritxuaren atzean agertzen dan textoa idazten dogu.

Konturatuko zarie, baiña, urtero desbardiña dala, eta 365 zatitxu orreik idaztea lan aztuna dala, ez-bardiñak izatea gura ezkeroz.

Betiko lez, Takoak Durangoko Azokan, arrakasta aundia izan eban.

Jendea oitu da an eskatzen eta zuzen joaten dira Gerediaga Elkarteko stand'era gure takoa eskatzen, baita Elkar eta Labayru gana be.

Gainera "Takoa bizkaieraz" eskatzen dabe.

Beste leku batzuetan be banatzen dogu: eskoletan, ikastoletan, parroki batzuetan (Iurreta, Gorozika, Zornotza, Ondarroa, Mungia, Bakio Bermeo, e.a.) eta mugako errietan (Aretxabaleta, Bergara, Aramaio, Motriku. Gasteiz, e.a.)

EUSKERAZALEAK INTERNET'EN

Gure web orria ortxe jarraitzen dau, eta orain arte 400.000tik gora bisita euki doguz.

Eskatzen daben argibide barriagaitik, badakigu geiena, Unibertsitatetik eta orrelako lekuetatik datozela ainbeste bisita. (Deustu eta Errioxako Unibertsitate edo goi-ikastetxeetatik)

Barruen daukazan argibide barriak obetzen saiatzen gara, naiz eta batzuetan antzekoak dirala uste izan.

Baten batek or ipintzeko moduko zeozer baleuko, prest gagoz artzeko.

Ez dauka zetan bizkaieraz izan bearrik, "erriko euskerea" izanez gero.

Eskerrak **Jokin Astobizari** bere lanagaitik Internet'en

IRAKASKINTZA:

Urte guztietan lez, jarraitu dogu asieratik Alkarte onen elburua izan dan Euskera irakastea.

Ikasleak aspaldian ez dira gitxiagotu eta ez ugaritu be. Irakasle betikoak zintzo jarraitzen dabe.

"ZER" ALDIZKARIA:

Gure "ZER" aldizkaria illero agertu da eta asko poztuten gaitu lan onek, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarra dalako.

Argitaratzeko ez daukagu arazo aundirik, eta errietan ezin dogu kobrau, gitxik ordaintzen dauelako BBK'ko gure kontuan.

Eskerrak irarkolako lana Foru-Aldundiak ordaintzen dauskula.

Alan da be, aurrera egiteko asmotan gagoz. Eta zuk be, euskera bizia, errikoa, maite dozunez, lagundu zeinke modu onetara:

- bazkide barrien izena emonaz.
- ZER aldizkarian atarateko lanak bialduz.
- ekonomi arloan eskua luzatuz. Eta diru biltzaleak aurkeztuz.



ETXEA:

Ba-daukaguz arazoak etxe zarra dalako, eta "derramak" edo ordainketak aundiak diralako. Igaz 2013an ordainketa asko egin bear genduzan, eta dagonillan amaitu doguz.

Amaitzeko, eskerrak emon bear dautsoguz Bizkai-ko Foru Aldundiari ta Bilboko Udaletxeari.

Ez gitxiago idazleai, irakurle eta lankide guztiai. Bai ta eskerrak be irakasle eta ikasleei, zintzoak izategaitik.

Ekintza guzti oneik, ontzat artzen dira.

Ontzat artu ziran batzarkide guztiak, eta eten barik jarraituko dabe aurrerantzean.

GALDE-ERANTZUNAK:

Aurten il jakun; **Jose Antonio Retolaza**, gure mai-kide ta bazkide izanekoa, eta oni buruz bertso batzuk abestu ziran.





Bizkaia

AMAIERA:

Klaudio lendakariak, batzarrari amaiera emoteko zutundu zan,
eta bertso eder au eskeiñi euskun

Oraintsu joan jaku

Iñaki Azkuna,

Bilbon bizitu danik

endore obena.

Munduko alkate artean

bera prestuena,

itzez eta egitez,

eredu doguna,

batez be dogulako

egizko euskalduna.

AMAIERAN

MUNETXE

Bil- 2013-03-21

Beste barik eta gaueko zortziterdiak zirala, batzarra amaitutzat
emon genduan.

Klaudio
Barroeta Amorrortu
LENDAKARIA

Paulo
Atutxa Agirre
IDAZKARIA



IÑAKI AZKUNA

(G.B)

Bere bizitzaren barri trinkoa.

Medikuntza ta kirurgia ikasi ebazan Salamankako Ikastetxe Nagusian, lizentziatura 1966n.urtean lortuz. Bost urte geroago doktoretza amaitu eban.

1973 urtetik aurrera, medikuntza fisiko ta erradiologiako irakasle izan zan Euskal Erriko Unibertsitatean. Urte berean, Gurutzetako Ospitaleko osagille biurtu zan.

1981 ean Gurutzetako Ospitaleko lendakari izendatu eben. Eta bost urte beranduago, 1986n.urtean, Gurutzeta ospitaleko erradiologiako zerbitsuen buru.

1999tik Bilboko Alkatea da. Bere agintaldian, Bilboren barriztea indar geienagazegin dan urteakaz bat egin dau.

2003go martxoan aurre-gurintxueta (prostatako) minbizia eukala aitortu eban.

2012ko irailaren 14an, Azkunaren emaztea il zan.

Pariseko Unibertsitatean, ikasten egoala, ezagutu eban Filogia ikasten ebillen gazte bat, Anabella Dominguez eritxon mexikarra. Geroxeago emaztetzat artu ta seme bat izan eban.

2013ko urtarrilean, Munduko Alkate saria emon eutson City Mayors Fundazioak Bilbo eraldatzeagaitik.

2014ko otsailaren 22an, jatetxe baten otordua egiten egoala kordea galdu eban, eta ospitalera eroan eben.

2014ko martxoaren 20an minbiziak il eban.

Lau galdera Azkuna Jaunari.

Asieran, Unamunoren esana gogoratzen dautso galdetzallari: Mundu osoa, besterik ez, Bilbo baño andiago dala.

1- Munduko Alkaterik onena zarala esatea zer deritxazu ?

Iñaki Azkuna.– Lenengotan barregarri lez artu neban. Baña egia zala ikusi nebanean, arrotu nintzan. Alan da be olango saria bilbotar guztiena dala esan bear dot. Bai eta gauza andia da lau kontinenteetan Bilboren alde berba egitea.

2- Gizon irekia ei zara.

I. A.– Bost urte daroadaz aletin orretan. Benetan esan neike udaletxea, txukun, apain ta edergarri dagola. Garrantzi andiko gauzea da au.

3- Min biziaren gaitza dala ta, zer esango zeunkie gaxotasun orregaz jota dagozenai?

I. A.– Gogor egin bear dala. Bizitza luzetu daikela ustea euki, txarrera egigo ote dauen jakin ezarren. Bilbon daukagun osasun bidea, naiko ona da.

4-Zer da obea: izatea ala gura izatea ?

I. A.– Izatea, gatxa da, baña bearrezkoa. Gura izatea, gogoaren arloa da. Gauza ona da, baña ez da beti lortzen. Gogo ta bultzada barik ezer ez da burutzen. Nire ustez, iñor ez dago griña, irritsa, zaletasun, maitasun, gorroto barik. Guzti orreikaz nortasuna eratzen da. Baikorrak, gauz onak egiten ditu; ezekorrak, ez dau ezerbe egiten.

Munetxek.

Bil. 2014.03.25



Lourdes eta Paulo´ren Urrezko ezteguak

Eta txangolaritasunezko – saria

1963 – 2013

Praga, Budapest ta Biena´tik zear IV.



2.013´an Urrilla´ren 18´ko barikua eta seigarren eguna.

7´retan jagi giñan, Budapest´eko BUDA arrotzetxe orreitan azkeneko gauan lo eginda.

Eta 8retan gosalduta, 9retan zorroak buseko fardelkarian sartuta busera igon gendun, Bienako urian, gure txangolaritzaren azkeneko egun biekaz atsegintzera.

Baiña uri eder orreitan egin genduanaz esan orduko, bere edesti labur bat aurreratuko dautsuet, uria-
ren ikuspeneke iruditazunean kokatu gaitezen.

Biena´ren edesti laburra.

Bienako uri eder au, Austriaren uri nagusia da, ta izadi⁽¹⁾ onetan UNESKO´aren⁽²⁾ etorki edo guraso-ondokoa⁽³⁾ da, Ansburgotarrak antzelanetako jakintzan edo errijakintzan, eramán onetan ardatza⁽⁴⁾, musikako lan ederretan, eta uriarengaitik irasi eben ordezgarritzazko irudimenagaitik, mundu onen jendekuntzazko arloetan aundienetakoa egingadako gaiñ, Europa´ren uri artean ederrenetariko bat egin eben.

Austria, Europa erdiko alkar arteko errepublika⁽⁵⁾ bat da 1.920´an iraspendutako legeakaz jaurkitzen dana bere 9 lurralde nagusietan: bealdeko Austria, goi aldeko Austria, Burgenland, Karintia, Estiria, Salzburgo, Tirol, Biena, eta Borarlberg diranak bakoitza bere nortasunezko batzordeagaz jaurkituta, ta Iparraldetik Alemania ta Txekoslovakia, Ekialdetik Ungria, Egoaldetik Yugoslabia ta Italia, eta Mendebaletik Suiza ta Lietxtensteinegaz mugatuta dagoana bere 83.849 Km²´etan eta 7.541.940 biztanlegaz, Biena dala bere uri nagusia.



Biena, Europaren erdian Alpezeko mendi-saiets edo bularrean, Danubioko ibaiaren bazterrean, eta Bienako basaldearen ibarreko 414,65 Km²´etan bere 1.712.903 biztanlegaz kokatuta dago, uri nagusi orren eragipena 2.400.000 biztanleraiño elduta, eta Aleman izkuntzaren artu emoneko ulermenean bizi direnak.

Bienako izena, erromatarrek Bindobona deitu eutsenetik dator⁽⁶⁾, Eskozes-gaeliko, edo ta Irlandesean mendi zorrotz edo mendiaren goi aldea esangura dauana.

(1) Izadi = Naturaleza, Universo, Creación. (2) UNESKO = Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura. (3) Guraso-ondokoa = Patrimonio de la Humanidad y de la UNESCO. (4) Eraman-onaren ardatza = centro o meca de la filosofía. (5) Alkar-zaleko errepublika = republica-federal. (6) Nombre de origen celta Vindobona = Ciudad-Blanca, esangura dauana.

Biena´ren edestia.

Zarrenez aurrera.

K.a.500 urte, gizarteko leen bizilekuak Keltiarrenak izan ziran lurralde oneitan, eta ostekoak germaniarren leiñuenak.

K.a. I´go gizaldian eta erromatarren zabaltasunean, K.a. 13n urtean eureganatuta lurralde oneik, Alpesak ta Danubio ibaia, bezko muga lez geratu zan bertoko ta erromatarren artean, arik eta K.o. 476ko urtean erromatarren kaisertza ezereztu arte.

Bindobonako⁽¹⁾ Uria, erromatar gudalostearen ezar leku lez jaio zan, Panoniako eskualdea euren kontrolpean eukiteko, artean Xn Geminako talde edo lejioa, K.a. 106ko urtetik, K.o. IVgarrenengo gizaldiaren azkenerarte, Graziano ta I Teodosioren denboratan.

Erdi-Mendean.

K.o. IIIIn gizaldi ostetik eta Kaspioko lur zabaletatik etorrita, Suebo, Bandalo ta Alano germaniar leiñuak agertu ziran Europaren erdiko lur orreitan, àbaro edo àbarek eta majiar leiñuak mongolaren senideen artekoak ezarrita lurralde orreitan.

IXn gizaldian Karlomagnok menperatu ebazan lurralde orreik, Bienari Ostmark´eko⁽²⁾ izena ipinita.

Biena erdi mende onetan, Batikanoko Aita Santuagaz arreman oso estuak euki ebazan, bera izanda gurutzadarako gudalozteari, bear ebezan janari ta tresneriakaz ornitu egiten eutsozanak, adibidez: Ingalaterrako I Rikardo “leoi biotzekoari”.

Korbiño´tar Matiasegaz, Ungriako uri nagusia be izan zan, eta XVn gizalditik Napoleonen gudataraiño be bai, Germaniarren Erromako Kaisar Sakratuaren Uri nagusi ori, Ansburotarren bizi lekua izan zalako.

1237ko urtean Biena babesteko egin ziran ormatzarrak, 1857urtean ezereztu ziran urterarteko luzerea artu ostean.

Aro-Berrian.

1453eko urtean Ekialdeko erromatar kaisertzak porrot egin ebanetik ta Konstantinopla otomano edo turkoaren mende jausi zaretik, oneik ardura aundia artu eben Bienako uriagaz, bera izan zalako giltza Europaren beste erriak menperatzeko, beren garrantzi aundienetarikoa, Soliman “Ospatsuagaz” artuta.

Baiña turko edo otomanoaren alegiñak alperrezkoak izan ziran, Austriarrak Alemanaren laguntzagaz garaipendu ebelako leen 1.529ko urtean.

Eta 1.532ko urtean Soliman ostera agertu zanean uolde ta elur aundiakaz, Austriarrak ondo babestuta egonda Vn Karlos Kaisarraren anai Fernandok bideratzen ebazan gudaloste aundiakin, ezin ebalako ezer egin.

1556eko urtetik Biena Ansburotarren uri nagusia izan zan, eta onen eragipen bidez asko zabaldu zan XVIIIIn gizaldian Danubioko ibarre-



(1) Bindobona = Vindobona, Viena. (2) Ostmark´eko izena = la marca del Este.

tatik, 1800 urtean Napoleonen guda aurretik 231.900 biztanle eukinda.

1683ko urtean egin zan Bienako bigarren borroka, eta Austriaren garaipenakazi asi zan Otomano edo Turkoaren berakada.

1683ko Uztaillaren 16an asi zan Mustafa´tar Kara, I Leopoldo Austriar kaisarraren aurka, bere egoera larrian garaipen orreik bear ebazalako, eta kañoi gitxi euki ebazalako, I Leopoldo Ansburogotarrak, aleman eta polakoakaz gudaloste aundi bat egin da menperatu ebazan Iraillaren 12an Kalenberj´eko borrokan Bisir orren guda-indarrak, eta ortik aurrera ez eban I Leopoldok turkoaren erasorik euki.

1683ko gudako ingurutasunetik, Uria babesteko orma nagusitik kanpo egon ziran erri txiki asko ezereztu ziran, eta lurralde orreitan jauregi eder asko eraiki ziran euren baratzezko lorategi zabalekin, 1720 urtean, 200erarte eldu ziranak.

Napoleonen aldian.

1809ko urtean Wagram´eko borrokan Napoleonek Austriarrak menperatu ebazanean, ariñago XVIan Luis eta Maria Antonieta bizi ziran Schönbrunn jauregira joan zan bizitzen, eta Napoleonen ego aldi onetan Frantzia ta Austria alkartuta, berau, Austriako kaiserraren I Franzizko Jose ta Napoleseko Maria Teresa´ren alaba Maria Luisagaz ezkondu zan Josefinagaz bizi alargunduta gero, eta beragaz euki eban Erromako erregea deituko zan semea.

Austriako kantzillerrak, Napoleonek Errusian porrot eginda gero, Napoleonen aurkako aldera aldatu ebazan Austriako indarrak.

Eta 1814ko Urrillaren 1etik 1815eko Ekaiñaren 9rarte, erri-arteko biltzarren izena ipini eutsoenagaz eta batzangotasunezko merkantil katolikotasunaren agindu edo aolkularitzapean, Bienan egin ziran norkerizko ta utsegintsuzko batzar orreitan, Europaren lurzabal guztiak laterritu ziran, berezko aberri edo errigizartearen eskubideak kontuan artu barik edo euren aurka, Europako berezetasunaren zuzenezko jaurkintzak, sasi jainko ta maltzurtasunezko lekuetatik bideratuta.

Biena, urte orreitatik eta geroko 30urtetan, Europako politikaren ardatza biurtuko zan.

XIXn gizaldi onen azken urteetan, eta uriari egin eutsoezan berriztasunakazi, amar bider geiagooan ugaritu zan bere jendetza.

1.857ko urtean Austriako kaiserra I Franzizko Josek, uria inguratzen ebazan ormak botateko agindu eban, eta Ringstrabe ibiltoki orreitan, eres antzerki, Goi maillako Ikastetxea, Udala, Lege-Etxea, Edesiti ta Bolsa Etxeak, Antzelan, ta Berezko edestiaren etxeak eraiki ziran.

1866ko urtean Austro-Prusianoko gudan, Austriak porrot egin ondoren, eta alemanak Prusia eurenagatuta, Austria Ungriagaz bat egin bear izan eban, alemanagaitik iruntsitako arrizkuan geratu zalako.

Eta 1867ko urtean Ungriarekin alkartuta gero, Biena, austroungriatar⁽¹⁾ kaisertzaren uri nagusian biurtu zan, Austria, Ungria, Eslobakia, Txekiako Errepublika, polakoaren Galizia, rumanoaren Transilbania, ukrainiako Bukobina ta Ruteniak, Kroazia, Bosnia-Erzegobina, Eslobenia, Alto Trentino ta Italiako Adijioagaz osotzen zana.

1916ko urtean lortu eban Bienak bere gizartetasun aundiena 2.239.000 biztanlegaz, eta 1.848-1.916ko urte bitarteak izan ziran, Freud´tar Sigmund buruko gogoaren azterketa edo lortu eban sikoanalisi´a, Bauer´tar Otto´ren austromarxismoa, Klimt´tar Gustav´en margolaritza, Moser´tar Koloman´en irudizko idazkera, bals´eko esku-dantza ta eresi edo soiñua, zalgurdi aundiren ibilaldiak, Bienako akeita etxearen ugaritasuna, zorakerizko aldi orreitan jendekuntzan lortu eban dirdiratasuna eta abar.

1914´ko leenengo gudan eta austroungaroaren ondamenagaz, diztaratasun orreik arlo aundienean moztu egingo ziran, bai eta 1.278´tik Absburgotarrak eroan ebezan jaurkintzazko ardurak be bai.

Saint-Germain´eko elkargo bidetik Biena gaur daukan zabaltasunera txikituta, Austriatarren Errepublikak txiker orren uri nagusi lez geratu zan, diru, politikan, eta biztanle arloetan berakada aundia eukinda.

Ata guzti, bere Bienako jakintsuen barrutiagaz, Bienak jakintsu asko euki ebazan Popper´tar Karl, Stxlick´tar Moritz, eta Wittgenstein´tar Ludwig´ek lakoakin, XXn gizaldian eta Europako jakintsuen artean, ardatz edo erdigune lez kokatuko ebana.

1.919-1.934 urte bitartean, gizartekerizko edo sozialismuaren alderdikideagaitik jaurkituta egon zan, "Biena gorria"ren izenagaz ezagututa aldi orreitan.

III In Reitx´a.

Biena 1.938ko urterarte iraun eban jendekuntz dirdaitsuan, arik eta erria katolikotasunezko Aleman

(1) Austroungriarrak = Kroatak, Eslobiarrak, Bosnioak, Ungaroak, eta Eslobakoaren leiñuakazi osotzen zana.

aberrikoiagaitik edo fazizmoaren eritxiko alemanagaitik menperatuta geratu arte.

1.938ko Epailaren 14an Biena ostera deitu zan Ostmark'eko Uri nagusia, eta Hitler'ek bertan emon eban Bienako erritarrai bere lenengo itzaldi ospetsua, Ofburg'eko jauregiaren erdiko begira tokitik.

Hitlerrek, bakezko baieztasunagaz egin zala erri bien erantsi ori, erriaren eritzia batzeko auteskundeak egin ebazan, eta %'tik-99'73eko autarki artu ebazan bere alde, guztiz eskerniatuta egon ziran auteskunde orreitan.

1.940ko urtean asi zan Munduko-guda orreitan eta amerikarrak sartu ziranetik, Bienak, bonbaketa asko euki ebazan, berak gurasoen ondore euki ebazan ainbeste ugaritasunezko etxe bitxitik asko ezereztu ziranak, eta gudalozte sobietar, frantzez, amerikar, eta ingelesakin batera artuta, Berliñek euki eban jaurkin antzeko baten geratuko zan urrengo 10 urteetan.

1.955eko Loraillaren 15'ean Figl'tar Leopold eta Raab'tar Julius'en egipide bidetik eta Mosku'ko itunean artu zan erabagiagaz, Austriak ostera berrezkurutzen dau bere askatasuna, eta ortik aurrera artu eban bere erdikotasunezko antolabidetik, Austria OPEP, ONUDI'a, IAEA, eta IIASA'ren jarleku edo erritarren arteko etxea biurtu zanetik, Biena O.N.U.ren irugarren uri nagusi lez geratu zan, York Berria⁽¹⁾ eta Jinebraren ostetik.

1955eko urtearen ezkeroztik Europa Batua eta Stxengen'eko erriaren kidea da, eta 2.002'ko urtetik aurrera bere diruzko txeliña kenduta, euroa artu eban bere diru lez.

“Austriarren erregetza dirdiratsua izan zan, odol jariozko amaiera euki eban bezela” 1.848ko urtean I Franzizko Jose 18 urtegez Austriako kaisertzara igon ebenean, ez ebazan eskillara orreik ondo igon, Ungriarrak aurka euki ebazalako.

Eta 1849ko urtean Errepublikaren jaurkintza ezarri ebenean, an sortu ziran matxintasunak, Errusiarren gudalostegaz bakarrik bakeztu bear ebazan.

I Franzizko Jose kaizerrak, ostera berrezkuratu eban erregetasunarentzat alosokeria eta gudaloztearen indarra biurtu eban erregetzaren euskarri edo irozkai ori⁽²⁾.

Eta kaisertzazko jaurkintzan erdiratuta aginte guztiak, berak artzen ebazan kaisertzaren erabagi guztiak.

1.853ko urtean I Franzizko Jose orrek, gaiztakeri aundi batetik bizirik urten eban eta erria inguratuta egon zan arresitzarren kanpotik, Botibkirtxe'ko eleiza eraiki eban, artu emon aundia eukiko ebena erriaren azalkuntza edo ta azkeragaz.

1854ko urtean I Franzizko Jose Austriako kaizerra, Babiera'ko Isabel'egaz ezkondu zan⁽³⁾.

1858ko urtean euki eben leenengo semea, eta Rodolfo'ren izena ipini eutsoen.



(1) York-Berria = Nueva York. (2) Euskarri edo irozkai = soporte de la monarquía. (3) Babierako Isabel = Sisi emperatriz.



1867ko urten I Franzizko Jose eta Isabel, Ungriako erregeak izendatu eban.

1873ko urtean diruzko boltsaren jokua porrot egin eban, eta Biennako buruzpideak ez eban kalte aundirik euki, urte aietan Izadiaren Ikustokia⁽¹⁾ izan zalako.

1889ko urtean I Franzizko Jose kaiserraren ondorengoa izango zan Rodolfo semea Maria Betsera baronesagaz batera il jakien, printzeak eizarako euki eban jauregian mixteriozko zoritxar baten.

1914ko Bagillaren 28an Sarajebo´ko errian matxinatu batek, I Franzizko Jose kaiserraren loba Franzizko Fernando eta bere emazte Txotek´tar Sofia Ohemberg´eko duke-andrea il ebazanean, Munduko Leenengo guda sortu eban.

1916ko urtean il zan I Franzizko Jose, 68 urtetan kaisertzako jaurkintza eroanda.

1.918ko urtearen Azaroan I Franzizko Jose kaizertzaren ondorengoa izan zan I Karlos´ek, eta guda amaituta gero, azkeneko agiria sinatu ebena, bere jaurkintzazko arduetatik baztertzea zan, baiña I Karlos´ek ez ebalako argi ta garbi uzte agiririk egiñ, bere emazte Zita kaisar andreak, beren eriotzerañño eskatuko ebazan Austriako kaisar andrezkotza eta Ungriako erregetzak.

Zita kaisar andre onek, zortzi seme-alaba euki ebazan, eta bera izan zan Lekeittioko eleiz nagusiaren ondoko jauregitzura etorten zana udako oporretan. Gaur itsasoko urakaz eta daukan jatetxe ederragaz, osasunarentzat uretze antzeko baten biurtuta dagoena.

Oar-txikian agindutako Ekanduzko ondorioa.

Budapesteko gidariari, noren serbitzurako ziran an egiten ziran ainbeste berrizketasunezko lan aundiak: Euren gizadirako, urrengo be-launaldiarentzat, ala txangolaritzaren gizadirako itandu neutson.

Eta beren erantzuna bizkorra izan zan: “Komunismo edo Sobietarrekin, erria gose andiagaz ibili zan”.

“Eskubitarrekin bardin”.

Eta Kristautasunezko Demokraziarekin geiago edo besteakin beste, lanaren sari edo soldataren erdia Laterriarentzat izanda, eta I.B.A´ren ordainketak %´tik 27´a ordainduta.

Geiago arritu nintzan, Europaren mendebalekoak baiño aurreratuagoak dagozela ekialdeko lurralde orreitatik esaten danean, oraindiño ikustea, zelan:

- a) I. San Estebanen koroari Santutasunezko esan eta arrerakaz gurtzen dabela.
- b) Kaizar-Sakratu agindupeko orreitan, gualosteko gizonak erri-gizonaren gaiñetik egotea.
- d) Eta eleizako gauzatan naita iñor ez joan arren, ain oparotsuzko begirapenaren gur-ketagaz ibiltea erdi mendearen menperatzailletasunezko lege, siniste zuzen ta gogortasunezkoakaz dabizelako.

(1) Izadiaren Ikustokia = *Exposición Universal*.



Gaur eguneko Europa onetan norkeriz ibiltarren ikusita, zelako maltzurrezko lapurtzatan edo ta sasi-jainkerizko asmakuntzaren serbitzura ibilteagaitik, zorrigaitzezko aukeran sartuta gagozala, errigizartearen antolamendurako ibili bear doguzan aurretiko⁽¹⁾ edo bear bearrezko tresneriak “Elburutu” egin jakuz, gainberatu egin doguzelako giza edo ta gizartearen eskubi-deak. “Jainkoak Gai-Bereztutako Izadi oneri ipini Eutsuezan Lege guztiaren aurka”.

Eta ez daukagula zentzapiderik esan leike, kaizalerriko menperatzail batzangotasunezko bideak sendotzeko, errigizarteak bizitzeko bear dauazan oiñarrizko gauzaren kontrola euki bear dabelako, eta 325ko urtean Nizeako eleiz batzarrean guzurra irakatsi⁽²⁾ ondoren, katolikotasunaren arauzko guzur aundi orregaz, datorren edesti guztitik indarkeriz, eta nai odol-jariozka izan arren, zentzu orreitan jaurkintzea gura dabezelako gure ondore datozan belaunaldiak, euren bizitza norkerizko ameskerian iraun dagian.

Baiña, Jainkoaren legeak ori be badaukie ikusita, eta orregaitik mundu fisiko onetan guzurak ez dauka beste biderik, guzurragaz elikatzea baiño.

Eta gaur egunean gaitz egokikoak errez ikusten diran lez, norkeriaren maltzurzasunezko guzur orreik agiri agirian agertzen dira, eta errez estalkiaren edozein lekutik tiratu ezkeru, lapurtutakoak agertzea.

Izadi fisiko onetan lapurtzarako arauak euki ezkeru, nabariak dira agertzen diran emaitzak, sagasti batek, sagarrak baiño ez dauelako emoten.

Orregaitik gogoratu bear dogu, Europaren berezko erri gizon ospatsuenak esan dabena beti, XVIIIⁿ gizaldi azkenean eta XIX^{garren}o gizaldiaren asieran asmatu eta

aukeratuz, ezarri ziran Aberritasunezko Laterri onegaitik: “Sekula ez dirala izango zuzentasun eta zentzunezko laterriak, bakearen ordezkartzarako sorburuzko legearen eragilletasuna, aldatu edo ta gainberatu egin dabelako norkerizko emaitzaren bidez”.

Eta ez da Bakea bide orreitatik lortzen doguna, Gosea, Borroka, Zoritxarra eta Nekagi-ro-Aundiaren bidetik, bizitzeko bear doguzan tresnerigaitik etenbageko gudan ibitea baiño, Gaia norkeriaren bidez, jainkotu egin dogulako.

Jaiotako gizadiarentzat Jainkoaren agindua nire us-tez, gure benetako ardura: “Gaiaren eragilletasuna da, giza edo ta gizartearen serbitzura, daukazan senidetasunezko mailla guztietan.

Erljio, Izkuntza, ta Aberrikotasunak kontuan artuta, eurak be diralako gure antolamenduzko arduran, zuzen eta zentzunezko tresneriak, demokrazizko ordezkartz on baten, bakez bizi gaitezen.

Gure euskal jaurkintzaren ordezkariak, Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio aurretik zala, izan ziran Aleman, Amerikar, Italiar, Frantzez ta abarrekin esaten ebena ori berori “Kristautasunezko Demokrazia irasi ebenean” munduko bigarren guda ostein.

Benetan jakin eben, zergaitik berba egiten eban.

Ordezkartzazko arloari begira, argi ikusten ebela-ko: “Errigizartearen ardura bagetasunean sartu ezkeru, Europa, Amerika ta mundu onen gizarteak, txarto ibiliko giñela”, “Zeruko Jainko Jaunak irasitako izadi au, beren barnean jaioten diran guztien zor-eskubidearen ardurak betetako Egin ebalako”.

Jarraituko da



(1) *Aurretikoak = premisas, o, primeras proposiciones como instrumentos de toda conjugación en toda constructiva vital.* (2) *Guzurra-irakatsiz = dogmatizar la mentira, o, lo que para esos casos se necesita, fuera de toda costumbre-moral contraria a la leyes impuestas por el Creador que la naturaleza lleva impresas consigo.*

IZADIA ZAINDU EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN ETA EUSKAL EDESTIA XIV.



1.1. Euskalerrian, errege jaun'en sorkuntza.

Euskalerriko lurraldeak, euren batzarreko nagusitasunean antolatuz jaurkintzen ziran, eta batzar nagusi orrekin agintaritzak mugarik ez ebala euki adierazteko, Jaunak Bizkaiko jaurkintzaren antolarazirako, zelako baldintzakaz aukeratzen ziran argituko dodaz.

Europa guztian, baiña Euskalerrian batez be, errege jauntzak aukeratzen ziranean, erriak iru gauzatarako artzen ebazan:

- A) guda buru izateko.
- B) zuzenbidearen buru nagusia izateko.
- D) Bizkaiko ondore aundiko lurraldeak zaintzeko.

Jauntza, ain zabaleko almen eta ondasun orrekaz jantzi ba eben, bere buruzagitasuna, lasaitasunezko jaurkintzan iraun egian izaten zan.

Eta kontu aundian artuta, berea ez zala ezer, bere antolarazian⁽¹⁾ babesteko euken guztia, Bizkaitarrak emonekua zalako.

Orregaitik, aginduaren eskubide bakarra errian egon zala erakusteko:

Erabagitasunean apur bat.

Beste apur bat: Egilletasunean.

Eta beste ataltxo bat, Legegilletasunean bakarrik, emoten eutsoen.

Alderantziz baiña: Batzordea beartuta geratzen zan, jaun edo erregeak bere antolarazian gure arteko bakeak lortzeko, edo ta baten bat indarka sar-

(1) Antolarazian = arbitraje.



tzen zanean kanporatzeko borrokatu bear izaten ebenean, euki eben gudaloztea, gure guda mutillakaz bear eben neurrian indartu bear ebelako.

Jaunaren antolarazi barruan bakeak lortzeko izaten zanean, diru ordezeko soldata barik, eta ariñautik ordainduta, etxetik kanpo bere gauzatarako izaten zanean.

Europako Jaun erregezko baldintza au, nai berezko erri guztien eta Euskalerrriaren askatasunerako izan, txeberazko sare aundi bat biurtu jakun, Euskaldunak, eta Europaren berezko erri guztiak ortik aurrera, anai arteko borrokan ibili garalako beti.

Jaun erregeak, bategaz edo besteagaz borrokan ibiltzen ziranean, bai beren maltzurkerizko andikeriaren billa ibilita, adibidez: II. Juan⁽¹⁾ eta beren seme Fernando katolikuak Nafarroagaz geratzeko ibili ziranean, anai arteko guda ugari egiñez gain, Aita Santua Europaren katolikotasunezko aolkulari nagusi lez euren alde egonda, erlijiñoagaz guzurrezko naste andiak egin ziran.

Zergaitik ?:

Europaren berezko erri eta Euskalerrriaren askatasunarentzat batez be, eleiza katolikoaren alderikeriak, itxura gabetuan⁽²⁾ ekarten eban txeberazko

sare aundiak: Mundua latiniñmenpe batzangotzeko, kaizar ta Aita Santu baten agindupeko jaurkintzaren norkerizko asmakuntzak⁽³⁾, greziaren jakintz demokratikoagaz bat egin ebalako.

Eta Aita Santuak, Erromatar kaizar sakratuzko katolikotasunaren kaizar domiña andi ori, Europako errege katoliko guztien buru gaiñean dangilizka ipinten eban indartsuenak artu egian, berezko erri-gizartearen eskubide gaiñetik, asmakuntz gaizto orreik lortzeko.

Baiña, Greziatarren Jendekuntzazko Jakintz Demokratikoa, naastu leike erromatar menperatzaile kaizar sakratuzko katolikotasunaren legeakaz ?.

EZ ! guztiz aurkakoak⁽⁴⁾ diralako.

Alderantziz baiña, naste ori egiñaz, eurak emon euskuen aukera ederrena, euki eben menperatzaile lletasunezko asmakeri ori, Berezko egiagaz alkar aurkezteko⁽⁵⁾.

Eta nai ta egibillaren azterkuntzak oso odoljariozko lazkartasunean⁽⁶⁾ etorri izan ba dira be, Greziaren jendekuntzazko jakituri demokratikoa artean sartuteagaz, mesede aundiak egin eutsozan Munduari, Berezko egiaren zentzuak argitu zitezen.

(1)II. Juan=Aragoiko ta Nafarroako erregea.(2)Itxura gabetuan=camuflado.(3)Kaizar ta Aita Santu baten agindupeko jaurkintzaren asmakuntza = nacional-catolicismo fascista. Rouko Barelak atzo, nortzuri esan eutsoen faziztak zirela ?. (4) Aurkakoak = antagonicos.(5) Alkar-aurkezteko = cotejar. (6) Odoljariozko lazkartasunean = dureza, aspereza, bastedad.

Baiña, Europan eta Euskalerrian batez be, errege jaunak sortu ziranetik gaur arteko edesti guztian, eta jakintza ta indarra, aginduten eban nagusiak guzurrezko baldintzatan biurtu ebenetik, maltzur joko orregaz Bereztasunaren egi guztia naspiltzeko alegiñean ibilita: “Berezko erri ta izkuntzak, irten bide barik geratu ziran”.

Edestiaren Ekanduzko joko guztia, berezko erri ta Izkuntzaren aurka biurtu eben, berezko erriak eukazan nortasunak desagertu, aienatu edo suntsitu-ta, mundu oneitan euren sasi jainkotasunezko jopu bildurrean⁽¹⁾ ezarri gindezan.

Gudaren buruzko alegiñean, nor ez da gogorazten Zesar'en Veni, Vidi, Vici'gaz, godoen et Domuit Vascones eta Katolikotasunak Nizeatik aurrera Euskerea bastartzeko esaten dauskuenakaz HABLE USTED EN CRISTIANO, euren beldurkerizko guzurra ostondu naian, edo ain narbaritasunezkoa izan da, norkeriaren indarkeria erakusteko.

Eta bai abar asko be, menperatzaile eritzi orren lorak baiño ez diranak, Berezko Erri ta Izkuntzaren aurka.

Zergaitik ez dabe esaten HABLE USTED EN KATOLIKO ?. Bildur dira euren menperatzaile maltzur jokoa argitan agertu izatea ?.

Argi dago, lotsabako ollo busti batzuk baiño ez dirala JESUSen irakaskintza olan zikintzen dabenak, sasi-jainkotasunaren asmoz.

Gaiñera, batu edo batzangotu baiño, nai nortasunezko erri ta izkuntzazko arloetan, milla zati geiagotan birrindu eben.

Munduko eta Europaren edesti guztia, odolkerizko sarrazkintza baten ekarri dabe sasi asmakizun ori dala eta ez dala. Nortzuk dira ikarabideen⁽²⁾ izutzaille edo izuarazleak⁽³⁾ ?.

Ez ete da ordua, zentzunezko aldakuntzan asteko?.

Gaiñera ikusita, berezko legearen indarrak buruaren goi aldi an daukaguzela keiñalari, noz iruntsiko momorro aundi baten antzera.



(1) Jopu bildurrean ezarri gindezan = ubicados en el miedo a la esclavitud. (2) Ikarabide = terrorismo. (3) izu-arazleak = espantador, amedrentador, terrorista.



1.2. Gure Napar erregetza.

778-824an Orreagan Euskaldunak, Karlo Magno-ren aurka euki genduzan borroka bi orre in ostean, Aritzatar Iñigorekin asi gendun Nafarroako erregetza, Banu Kasi sendiaren laguntzagaz.

Eta 888an, III In Alfonsogaz Paduran⁽¹⁾ euki gendun borroka odoltsuaren ostetik, Jaun Zuriagaz, Bizkaiko jauntza.

Europa guztian baiña, 325ean Nizean, gaur daukagan katolikotasunezko alderdi menperatzaille antolatuta ta erabagi zan jaurkintzagaz sartzen dira VII., VIII., eta IX. gizaldi oneik be gaur arte, Europa ta Munduaren berezko nortasunaren izatasunak, Euskalerrikoagaz batera desagertu zitezen edesti guztiko borrokan. Barriztu bear ziran ekanduzko eritziak eta tresnerietan sortu ziran aurrera-kuntza guztiak, katoliko batzangotzeko asmakizunaren serbitzura ipini ziralako.

XX In gizaldi oneitan konpondu bear dira, erdi-mendeko okerkuntza guzti orreik, bestela, ze izen ipini gure buru gogorkeri edo itsumen oneri.

Euskaldunak, Bereztasunaren babeserako, Nortasunezko Izatasunean euki genduzan errege-jaunak oso abertzale aundiak izan ziran, baiña txeberazko sare aundi orregaz nai ta nai ez inguratuta.

Nafarroako erregetzan, lenengoetatik asita esan bear da: Batzangotasun orren asmakuntza bidetik eta European Eleiztarrak Latiña elburu lez gaienduta euki eben aolkularitzazko jabetasunagaz, Nafartar Jaurkintzan, sekula ez zala idatzi agiri bat Euskeraz, eta latiñez ez ba ziran egiten, naiago latin kume⁽²⁾ baragarrian. Napar erritarrak ezere kontuan artu gabe.

Joko orreitan eurentzat gaur lez: zer ziran Euskal Nafar erritarrak ?.

III In Santxo Garzez Aundiak⁽³⁾ 1.035an kaizar erregetza, bere lau semeen artean banandu ebentik, Gaztela eta Aragoitarrak edesti guztian ibili ziran zirikatzen, norik geratuko ete zan Nafartar erregetzagaz.

Eta len, Frantzia ta katolikotasuna bakarrik euki ba eben etsai, Gaztela ta Aragoitarrak asmakizu-

(1) Padura = borrokaren ostetik Arrigorriaga deituko zana. (2) Latin kume = romance castelano, o, navarro-aragones. (3) III In Santxo Garzez "Aundia" = 965ean jai, 999-1.035 errege.

nezko talde orreitan kidetuta, lau bider aundiagotu egin ziran, Nafartarrak aurre egin bear eutsoen zirikatuaren eraso aldiai.

Gurutzadaren gudak aztu barik, ara be joan bear zalako.

Baita kontuan euki bear da, VI In Santso Jakintsua-ren⁽¹⁾ jaurkintzan, III In Zelestino Aita

Santuak beren berun bulda edo idazkietan, beste erregeari REX izenagaz bialtzen ba eutso ezan agiriak, VI In Santsori, 1.194an Jorraillaren 13ko berun idazkian eta gero urrengo VII In Santsori⁽²⁾ bardiñ, DUX edo dukearen izenagaz bialtzen eutsozala.

Baten batek ulertu leuke, zergaitik VI In Santso jakintsuak, Aldarrikatu bear izan eban “Euskerea Lingua Nabarrorun” lez ?.

Oso susmogarri agertzen jat neuri, Euskalerriko Nafarroaren erregea euskalduna izan eta Euskalrrian egonda, bere erriaren izkuntza EUSKEREAdala, aldarrikatu bear izatea.

VII In Santso Azkarra edo Indartsua gurutze gudan ibili zan denboran, ordezko jaurkintzan itzi ebananak, okerkeri galantak egin ebazan beste euskal lurraldeakaz, eta VIII In Alfonso gaztelarrak Araba erasotzen ibilita, 1.200ean Araba ta Gipuzkoa Na-

farroako erregetzatik banandu ziran gaztelarragaz itzarmenduta.

Eta Bizkaia 1.224an Nafarroako erregearen itzarmenetik askatu ondoren, naastu ziran Euskal lurrraren gizarteak euki bear izan eben sendi bateko ulermena, errege-jaunak ortik aurrera, euren antolaraziko lurraldeak, bananduta erabili ebazalako euren asmoak beteteko, edo baten batek daki zeren serbitzura.

Euskaldunak emendik asita, berez euki bear eben senidetasunezko ulermenean, naastuta ibili ziran denboraldi aundi baten, baiña sekula ez eben galdu sendimenduzko senidetasun ori, gero 1.789ko iraultzaren ostetik eta beti guda bidez, European antolatu ziran laterriak aberriak zirala aldarrikatu eben arte, orduan konturatu ziralako euren berezko aberriaren eskubideak ostuten ibili zirala.

I Teobaldo, 1.238an Lur Santuaaren seigarren gurutzeko gudaldia⁽³⁾ bideratu ebela eta Tauro mendian betiko ospagarritasuna lortu ta gero, 1.240an itzuli zan ostera Nafarroara.

Atutxa'tar Paul



Zornotza'n 2.013'an Urtarrilla'ren 15'ean



(1) VI In Santso „Jakintsua” = 1.128an jaiio, 1.150-1.194 errege. (2) VII In Santso “Indartsua” = 1.154an jaiio, 1.194- 1.234 errege. (3) Igo Teobaldo = 1.200ean jaiio, 1.234-1.253 Nafarroako errege. VI In 1.228-1.229, eta VII In = 1.248-1.253 Gurutz gudaldietan buru belarri sartuta egoala.

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



Sudoku

8			7		9			3
	1		5		6		2	
		2				7		
		9	4		2	5		
5								6
		7	3		1	8		
		4				1		
	5		2		7		8	
9			6		4			7

9	3	8	6	1	4	2	5	7
1	5	6	2	9	7	3	8	4
2	7	4	8	3	5	1	6	9
4	6	7	3	5	1	8	9	2
5	2	1	9	7	8	4	3	6
3	8	9	4	6	2	5	7	1
6	9	2	1	8	3	7	4	5
7	1	3	5	4	6	9	2	8
8	4	5	7	2	9	6	1	3

ARRIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzekodiru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

**Aita-semeak tabernan daude,
Ama-alabak jokoan.**


**Berriz ikusi bearko dugu
Bei gizena auzoan,
Berriro ere ez da faltako
Trapu zaarrik kakoan.**

**Eta lapurrek ostu dute
Guk gendukana etxean,
Eta gu gaude erdi biluzik
Beti inoren menpean.**

**Ondamendia gertatu zaigu
Geure etxean orrela,
Guztiok bizi nai dugu baina
Nola biziko bestela?**

**Geurea dugu erru guztia
Geurea dugu osoa,
Ez inori ba errua bota
Euskal Erria iltzean.**

**Baina gaztea naiz eta daukat
Etorkizuna eskuan,
Ez zaigu ilko Euskal Erria
Ni bizi naizen artean.**



Lezama